

# Goienkaria

Egubakoitza / 2010eko irailaren 24a / GOIENKARIAren ARGITALPEN BEREZIA

TOKIKOM



# SAN MIGELAK 2010

Oñatiko jaiak

JOSETXO ARANTZABAL



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzu s.l.**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



Oñatiko Udalak  
jai zoriontsuak opa dizkizue



OÑATIKO UDALA



**alkatearen agurra**

Lourdes Idoiaga

**Ondo pasatu jaiak**

Urtero bezala, oportetarik bueltan ekintzaz betetako hilabetea dugu zain, pertsona eta talde askoren ekimenetik eta lanetik sortutako emaitza den 2010eko jaietako programan ikusiko duzun bezala. Eta egin duten lan hori guztia eskertu nahi diegu, pertsona horiek guztiak egin dutelako posible jai programa anitza osatzea, geheingoaren gustukoa izatea espero duguna.

Egia da, aurtengo aurrekontua iazkoaren parekoa den arren, egoera ekonomikoak baldintzatzen gaituela, baina jaiak gozatzeko gogoak eta umore onak lagunduta egin nahi diegu aurre zailtasunei. Gainera, ziru gaude guztion ahaleginarekin egoera sozio-ekonomiko larriari buelta emango diogula.

Gogo-aldarte honekin, eta herritar askok egindako eskaerari erantzunez, su artifizialak bueltatuko dira aurten, baina modu desberdin batean, argia eta doinua batzen dituen ikuskizun berritzaile batekin, iaz izandako hutsunea betetzen lagunduko nahiko lukeena.

Bukatzeke, gurekin jai hauek gozatzeko aukerarik iznago ez duten guztiak izan nahi ditut bereziki gogoan, zoritxarrez, arrazoi bat edo bestea tarteko ezin gaitzkeelako guztiak egon.

Dena aurreikusi bezala joan dadin oraindik ere lan handia egin beharko duten eta antolakuntzan lagundu duten guztiei nire eskerrik beroena berriko ere emanez, bhotz-bihotzez.

Ondo pasau jaixak!!!

**AURKIBIDEA**

- Egitaraua > 04-05
- Haurren eta nagusien danborradak > 06
- Artzai Txakur txapelketa > 09
- 'Oñati begi bistan' erakusketa > 10
- 'Lizargarateko Txamao' antzezlanak > 12
- Bertso saioa > 13
- Herri Eguna > 14
- Errosaixo Bixamon eguna > 15



**argazki zaharra**

**70eko Errosaixo Bixamon Eguna**

Errosaixo Bixamon egun hartan – eta urtero egiten zuten bezala– goizeko lehen orduan atera zen argazkiko lagun taldea sokamuturrera. Sokamuturra herriko kaleetan barrena izaten zen orduan; ez gaur egun bezala, plaza inguruan bakarrik. Zezenetan ibili, 12:00ak arte, eta gero txikiteoa. Horixe egiten zuten. 1970. hamarkadaren hasieran atera zuten ondoko irudia eta sasoi hartan, oraindik, ez zegoen herrian gaur egun dagoen moztortzeko ohitura. Hori beranduago hasi zen.

Irudian daude, goian: Rafael Arregi. Lehenengo lerroan, goitik hasita: Iñaki (donostiarra), Marikontxi Zelaia, Jose Angel Ibarrondo eta Marisol Galdos. Bigarren lerroan: Pili Galdos, Luis Mari Arabaolaza *Artxubi*, Esteban Letamendi, Migel Egaña, Itziar Agirre, Carlos Ugarte eta Marijose Zelaia. Beheko lerroan: Angel Egaña, Ismael Urrutia eta Bixente Ezkurra.

**Argazkia:** Rafa Zubiria.  
**Testua:** GOIENKARIA.  
**Urtea:** 1970 edo 1971.



**ZURICH AUTOk eskaintzen dizu:**

**BALORAZIO PACKA:**

Autoaren lehen hiru urteetan, berriaren % 100eko balioa mantenduko da lapurreta, kalte eta sute kasuetan, baita laugarren urtetik aurrera baloraziorako portzentaje bereziak ere

**BABES PACKA:**

Gidabaimena galduz gero, derrigorrezko ikastaroaren diru-itzulaketa 500 euro izango da, gehienez.

**ASISTENTZIA PACKA**

Istripua edo lapurreta izanez gero, ordezko autoa 14 egunean erabiliko da, gehienez ere.

**FLEXIFRANKIZIA**

Sistema berri horrekin, frankizia urtean %10 murriztuko da automatikoki, ezbeharririk izaten ez bada.

**GAINERA...**

Zure seguruarekin familia osoarendako zerbitzu ugari izango dituzu.



**ZURICH**

M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon kalea 5 behea  
20560 OÑATI  
Tel.: 943 78 30 09  
Faxa: 943 78 31 36  
Polts.: 620 77 66 20

## EGITARUA

# JAIETAKO EGITARUA

## Irailak 17-26

**18:00-20:00** Kultura etxeko erakusketa gelan, Migel Angel Arzuagaren MARGO ERAKUSKETA. Astelehenetik domekara.

## Egubakoitza, 24

Egun osoan zehar BARRAKAK euro 1 kostako dira.

## Zapatua, 25

**Goiz eta arratsaldean**, Azkoagainen, II. San Migel zazpiko TXAPELKETA.

**16:00** Zubikoa pilotalekuan, 27. San Migel PILOTA txapelketari dagozkion partiduak, finalerdiak (bertan behera geratu dira).

**17:00** Antton tabernako plazatxoan, II. San Migel MUS txapelketa.

**18:00** Zubikoa kiroldegian, 33. San Migel ESKUBALOI txapelketa. Mutilen senior maila.

**18:00** Haurren DANBORRADA, Oñatiko Musika Bandak lagunduta. Amaiera Foru plazan izango da.

**Ondoren**, BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK.

## Domeka, 26

**Goizean zehar** Ageriko VIII. MARGO lehiaketa. Sari banaketa, kultura etxean, 14:30ean.

**09:00** TXISTULARI Bandaren goiz-eresia.

**10:30** Santa Lutzia zelaian, 51. nazioarteko ARTZAIN-TXAKURREN trebetasun lehiaketa.

**11:00** Oñatiko MUSIKA BANDAREN kalejira.

**12:00-16:30** AUTO KLASIKOEN kalejira eta ondoren unibertsitate aurrealdean erakusketa.

**13:00** Foru plazan Oñatiko MUSIKA BANDAREN kontzertua.

**16:00** BOLA-JOKO txapelketa San Martinen.

**18:00** San Martinen, ARKU TIROKETA erakustaldia.

**18:00** ERRALDOI ETA BURUHANDIEN konpartsak kaleetan.

## Irailak 27-urriak 12

**18:00-20:00** Ageriko VIII. MARGO LEHIAKETAKO eta margo ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai izango dira kultura etxeko erakusketa gelan.

Astelehenetik domekara

## Astelehena, 27

Egun osoan zehar BARRAKAK euro 1 kostako dira.

## Irailak 28-urriak 4

*Oñati begi bistan* ARGAZKI ERAKUSKETA plazako arkupeetan jarriko dute ikusgai. San Migel jaien amaieran lan guztiak zozkatuko dira.

## Martitzena, 28

**18:30** Foru plazan, HIPO ETA TOMAX pailazoen eskutik BELDURRAREN ETXEA ikuskizuna.

**20:15** Foru plazan, JOSELU ANAIAK taldearekin dantzaldia.

**23:00** Herriko kaleetan zehar eta Oñatiko Musika Bandak lagundurik DANBORRADA NAGUSIA. Amaiera Foru plazan izango da, danborradaren martxa eta San Migelen ereserkia jota.

**Ondoren**, Foru plazan dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.



## Auto klasikoen erakusketa

Autoak maite dituztenek hitzordua dute domeka, 26; izan ere, 12:00etatik 16:00ak arte auto klasikoen kalejira egongo da. Eta horren ondoren, unibertsitate aurrealdean erakusketa egongo da.

## Eguaztena, 29 SAN MIGEL EGUNA

**09:00** Txistulari Bandaren GOIZ-ERESIA.

**10:00** Txopekua tiro zelaian herri mailako PLATER TIROKETA.

**11:45** UDALBATZA udaletxetik parrokiara joango da Txistulari Bandak *Alkate soñua*-rekin lagunduta.

**12:00** San Migel Parrokian ELKARMEZA nagusia parrokiako koruak abestuta.

**12:00** Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.

**12:00-14:00** Etxaluzen, HAUR PARKEA. Eguraldi txarra egingo balu, kiroldegian.

**13:00** Foru plazan, Oñatiko MUSIKA BANDAK eskainitako kontzertua.

**17:00-20:00** Etxaluzen, HAUR PARKEA. Eguraldi txarra egingo balu, kiroldegian.

**18:00** Unibertsitate aurrealdean, LIZARGARATEKO TXAMAO herri antzerkia.

**19:00** Foru plazan, L'EXPLORATEUR taldearen kale antzerkia.

**23:00** Foru plazan, DAMBA taldearen eskutik munduko askotariko musika estiloen kontzertua.

## Eguena, 30

**11:00** Haur eta gaztetxoentzat PONEYAK ETA ADARDUN ANIMALIAK plazan.

**11:00-13:00** 2-8 urte bitarteko haurrentzat TXANTXI BIRI ludoteka ibiltaria Portuko plazatxoan.

**13:00** Foru plazan, ALMA LATINA taldearen kontzertua

**16:30-17:00** Foru plazan, PONEYAK ETA ADARDUN ANIMALIAK.

**17:00** SOKAMUTURRA Foru plazan.

**18:30** Kaleetan zehar, GARIBALDI talde mexikarraren kalejira.

**20:15-21:30** Plazan, GARIBALDI talde mexikarraren kontzertua.

## Egubakoitza, 1

**22:30** Zubikoa pilotalekuan BERTSO JAIALDIA. Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Miren Amuritz, Amets Artzallus eta Jon Maia.

## Zapatua, 2 HERRI EGUNA

**09:00** Txistulari Bandaren GOIZ-ERESIA.

**10:30** Unibertsitate inguruan:

> Herri mailako behi erakusketa.

> Herri mailako ardi, ahari eta bildots lehiaketa.

> Asto erakusketa.

> Behor eta zaldi erakusketa.

> Euskal txerri eta oilo erakusketa.

> Pottoka erakusketa.

> Gazta lehiaketa.

> Fruitu eta barazki lehiaketa

> Lore eta landare erakusketa.

> Artisau erakusketa.

**11:00** Oñatiko Musika Eskolako TRIKITILARIAK eta Tolosako GAITARIAK herriko kaleetan.



Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa



leku eta egun ahaztezinak



Etxe  
Aundi

Jatetxea-Hotela\*\*

Torre Auzo 9. ONATI (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 19 56

[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)

Ondo pasau San Migel jaixak!

## EGITARAUA

**12:00** 24. SAGARDO dastaketa Foru plazan.  
**13:15** Lehiaketen SARI banaketa.  
**14:30** Zubikoa kiroldegian, HERRI BAZKARIA.  
**18:00** Foru plazan, HERRI KIROL jaialdia.  
 Eguraldi txarra egingo balu, Zubikoa kiroldegian.  
**19:30** Parrokian F. Esnalen SALBEA, parrokiako korduak eta Oñati Abesbatzak abestuta.  
**20:30** Foru plazan, TRIKITAKE taldearekin erromeria.  
**20:30-23:30** Unibertsitate etorbidean, borondatezko ALKOHOLEMIA proba.  
**22:00** Zubikoa pilotalekuan, 27. San Migel PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK (bertan behera geratu dira).

**23:30** Plazan, TRIKITAKE taldearekin erromeria.

### Domeka, 3 ERROSAIXO EGUNA

**09:00** Txistulari Bandaren GOIZ-ERESIA.  
**12:00** Parrokian ELKARMEZA nagusia, parrokiako korduak abestuta.  
**12:00** Oñatiko MUSIKA BANDAREN Kalejira herriko kaleetan zehar.  
**12:00-14:00** Etxaluzen haur eta gaztetxoentzako PARKEA.  
**13:00** Oñatiko Musika Bandaren KONTZERTUA Foru plazan.

**17:00** Zubikoa pilotalekuan, profesional mailako PILOTA PARTIDUAK.  
**17:00-20:00** Etxaluzen, haur eta gaztetxoentzako PARKEA.  
**18:00** Foru plazan, HORTZMUGA taldearen OLIMPIKAS 2012 kale antzerkia.  
**20:00** Foru plazan LA DAMA orkestrarekin dantzaldia.  
**20:30** Balkoitik balkoirako BERTSO SAIOA.  
**23:00** MUSIKA, PIROTEKNIA ETA ARGI ikuskizuna Foru plazan.  
**Ondoren**, LA DAMA orkestrarekin dantzaldia.

### Astelehena, 4 ERROSAIXO BIXAMONA

**09:30-10:00** PONEYAK ETA ADARDUN ANIMALIAK Foru plazan.  
**10:00** SOKAMUTURRA Foru plazan.  
**12:00** Oñatiko Musika Bandaren KALEJIRA.  
**12:30-14:00** MOZORRO erakusketako sari banaketa.  
**16:30-17:00** PONEYAK ETA ADARDUN ANIMALIAK Foru plazan.  
**17:00** SOKAMUTURRA Foru plazan.  
**18:30** KLOWNTUKADA dantza eta perkusio kalejira.  
**20:00** Foru plazan EGAN taldearekin dantzaldia.  
**23:00** Foru plazan EGAN taldearekin dantzaldia.

**Zapata, 9**  
**17:00** 27. Arrasate-Oñati herri LASTERKETA.  
**Ondoren**, OKELA dastatzea Foru plazan.

**Domeka, 10**  
**19:30** Foru plazan DANTZARIA NAIZ emanaldia Verdini dantza taldearen eskutik.  
**Ondoren**, LOREAREN NAHIA dantzaldia.

**Urriak 15-azaroak 7**  
**18:00-20:00** LA FRONTERA, MEZCLA ENTRE CULTURAS argazki erakusketa kultura etxeko erakusketa gelan. Astelehenetik domekara (18:00-20:00)

**Zapata, 16**  
**19:00** Gazte zendutako Arzuaga anaien aldeko MEZA agustindarretan.  
**Ondoren**, CORO DE VOCES GRAVES DE PAMPLONA taldeak kontzertua eskainiko du.



### Etxeko txikiendako puzgarriak

Haur zein gaztetxoek barraketan eta jolasparkeetan disfrutatzen dute gehien. Horregatik, jaietan puzgarriez gozatzeko aukera izango dute, Etxaluzen. San Migel egunean irekiko dute (12:00-14:00).



### Musika Bandaren kontzertuak

Musika Bandak herriko kaleak girotuko ditu San Migeletan. Kalejiran ibiliko dira, eta jaietako kontzertu bereziak egingo dituzte: San Migel egunean eta Errosoixo egunean, plazan (13:00).



Oñatiko Ez! taldeak irailaren 29an, eguaztenean, eskainiko du kontzertua.

EZI TALDEA

## Txosnetako egitaraua

**Egubakoitza, 24**  
**19:00** Karpa, irekita  
**20:00** Presoen aldeko elkarretaratzea plazan

**Zapata, 25**  
**21:30** Rock kontzertuak

**Domeka, 26**  
**17:30** Pilota txapelketako finalerdiak

**Martitzena, 28**  
**19:00** Trikitxaranga  
**20:00** Txantxikuaren jaisiera eta pintxo dastatzea  
**20:05** Pintxo dastatzea

**00:00** Euskal presoen aldeko manifestazioa

**Eguaztena, 29**  
**14:00** Herri-babajana  
**17:30** Pilota txapelketako finala  
**21:30** Oñatiko taldeen kontzertuak

**Eguena, 30**  
**12:00** Txistu-bertso-poteoa  
**14:00** Bazkari feminista  
**17:00** Antzerkia: *Ogiyik ekarri etzun semia*  
**18:00** Transmaribollo kalejira  
**21:00** Kontzertuak

**Egubakoitza, 1**  
**19:00** Kaleblock popularra  
**21:00** Herri-afaria  
**21:30** Kaleko festia

**Zapata, 2**  
**19:30** Euskal presoen aldeko ekitaldia  
**21:00** Kontzertuak

**Domeka, 3**  
**17:00** Tortilla txapelketa  
**22:00** Bideo emanaldia: *Jaia bai, borroka ere bai*

**Astelehena, 4**  
**14:00** Paelladia  
**17:00** Di-Bertsioak



Bidebarrieta • OÑATI  
 Tel.: 943 78 34 44

Ondo pasau  
 jaixak!



## DANBORRADA

# Danborrak gertu dituzte ume, gazte eta nagusiek

Besteak beste, danbor-jotzaileek, dantzariak, banderadunek eta musikariek osatuko dituzte ume eta nagusien danborradak

NAROA ODRIUZOLA

**Jaiek xarma galduko lukete danbor doinurik gabe. Horregatik, haur eta nagusiek herriko kaleak hartuko dituzte zapatuan eta martitzenean.**

**H**erriko ume eta nagusiek atzetik aurrerako kontua hasi dute. Umeak danborrak hartzeko falta zaizkien orduak zenbatzen hasi dira dagoeneko. Izan ere, eurak izango dira lehenak Oñatiko kaleak danbor doinuz betetzen. Hori hilaren 25ean arratsaldeko seietan izango da. Nagusiek, aldiz, San Migel egunaren bezperara arte itxaron beharko dute; haiek gaueko hamaiketan irtengo dira.

**UMEEN DANBORRADA**

Danborrariak, barrika joleak eta sukaldariak izango dira umeen danborradako konpainiak. Hala ere, danbor-jotzaileak ez ezik, banderadunak, dantzariak eta



Danbor hotsak bihar (zapatua) eta martitzenean entzungo dira herriko kaleetan.

GOIENKARIA

musikariak ere izango dira protagonistak. 150 lagun inguru ibiliko dira.

Danborradak herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu. Arratsaldeko seietan Santa Marina plazatik

**Musika Bandak lagunduta zazpi pieza joko dituzte haur eta nagusiek; besteak beste, San Migelen ereserkia**

irtengo dira eta Kale Zaharrera hartuko dute. Aita Madina kaletik pasatu ondoren, Atzeko kalera joango dira. Kale Barritik pasatu ondoren, herriko plazan bukatuko dute.

Egitaraua

**Hilaren 25ean eta 28an**

Umeen danborrada hilaren 25ean (18:00); nagusien hilaren 28an (23:00)

**NAGUSIEN DANBORRADA**

Nagusien danborradan 130 lagun inguru irtengo dira kalera. Aurten, lau konpainia aterako dira danborra edo barrila jotzen. Horretan ere, danbor-jotzaileez gain, dantzariak, banderadunak eta musikariak ibiliko dira kaleak alaitzen.

Bidaurretatik aterako dira eta Euskadiko etorbidetik Kale Zaharrera hartuko dute. Atzeko kaletik igo eta Kale Barritik jaitsi ondoren, Herriko Plazan amaituko da ohikoa den moduan danborrada.

**IBILBIDEAN, ZAZPI PIEZA**

Umeek eta nagusiek zazpi pieza joko dituzte ibilbidean zehar. Besteak beste, Sarriegiren *Diana* eta Antonino Ibarrondoren *Despierta juventud* joko dituzte. Urtero bezala, San Migelen ereserkia plazan joko dute danborradari amaiera emateko.

Guztiek ekainean hasi zituzten entseguak eta ordutik hona asteen bi orduz entseatu izan dute danborrada egunerako.

*Ondo pasa jaiak!*



**Peugeot 5008. Zatoz ikustera!**



**Oñati**  
**GARAJEA**

Goribar auzoa 9  
OÑATI  
Tel.: 943 78 13 50  
e-posta: [garageonati@euskalnet.net](mailto:garageonati@euskalnet.net)

Miren Lizarralde   
fisioterapia zentrua

Ondo pasau jaietan!!!



- Errehabilitazio orokorra
- Uroginekologia
- Bertigoak ...

Kalegoiena 2-behea. Oñati  
Tel. 943 53 30 09

# AZKEN AUKERAK

Prezio interesgarriak

**2 eta 3  
logelako  
etxebizitzak  
eta garajeak**



Oñatiko herrigunean,  
Eroski ondoan  
Lehen mailako materialak  
Informazioa: 943 78 28 90



PROMOCIONES ARANZAZUBERRI S.L.



# ARREGI

## Nekazalturismoa



2 egongela  
eta jangela



6 logela,  
denak bainuarekin



*Paraje ederrean kokatua,  
leku egoki eta lasaia,  
atsedenerako  
behar duzun guztiarekin*




Garagaltza auzoa 20 • Tel.: 943 78 36 57 / 943 78 08 24 • [www.casaruralarregi.es](http://www.casaruralarregi.es) • [info@casaruralarregi.es](mailto:info@casaruralarregi.es)

*Ondo pasatu  
San Migelak!*



**ARKAUZ**  
MUEBLES  
ARETXABAETA




**ETXE MOBEL**  
ALTZARIAK  
ARRASATE



**ARKAUZ**  
COCINA INTEGRAL  
ARETXABAETA

**FAGOR**  
banatzaile ofiziala



**ARKAUZ**  
ELECTRODOMESTICOS  
ARETXABAETA

**expert**  
banatzaile ofiziala



Arkauz zure etxea da.



**GRUPO**  
**ARKAUZ**

ARETXABAETA • ARRASATE  
1950•2010

**60 urte**



ARTZAIN TXAKUR TXAPELKETA

# Hamabi artzainek hartuko dute parte txapelketan

Santa Lutzia zelaia

**Domeka, 26,  
10:30ean**

Goizean zehar, 51. nazioarteko artzain-txakur txapelketa jokatu da.

51. nazioarteko txapelketa jokatu da aurten Santa Lutzia zelaian

NAROA ODRIUZOLA

Aurreko urtean mende erdia bete zuen nazioarteko artzain-txakur txapelketa eta aurten-goia trebetasun lehiaketaren 51. edizioa izango da. Iraileko laugarren domekan jokatu da txapelketa.

Dagoeneko ohitura bihurtu da nazioarteko artzain-txakur txapelketa egitea eta aurtengoa 51. aldiz izango da. Urtero, iraileko laugarren domekan izaten da txapelketa eta aurten ere hala izango da.

Irailearen 26an, 10:30ean, Santa Lutzia zelaia artzain giroan murgilduko da trebetasun lehiaketa dela-eta.

**PARTAIDEAK**

Hamabi artzainek hartuko dute parte txapelketan, nork bere txakurrarekin, noski. Euskal Herritik ez ezik, kanpotik ere etorriko



Aurten, hamabi izango dira txapelketako partaideak.

GOIENKARIA

dira artzainak: Kataluniatik bi; Frantziatik bi; Castelletatik bat; Iparraldetik bi; Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako txapeldunak; eta Euskal Herriko txapelduna. Hori da, hain zuzen, Oñatin jokatzen den txapelketaren berezitasuna; izan ere, bes-

te txapelketa batzuetan irabazle edo txapeldunorde gelditu direnek soilik hartzen dute parte Oñatiko nazioarteko artzain-txakur txapelketan.

**PROBAK, ZAILAGOAK**

Iazkoa txapelketaren 50. aldiz izan zen. Hori dela

eta, berritasun batzuk sartu zituzten antolatzaileek; adibidez, probetan aldaketak egin zituzten. "Geroz eta hobeto prestatzen dituzte txakurrak eta guk ere geroz eta proba zailagoak jartzen ditugu", azaldu zigun Joxe Mari Bengoak, nazioarteko artzain-txakur

## Artzain-txakur txapelketako parte-hartzaileen zerrenda

ARTZAINA	TXAKURRA	HERRIA
Marcel Uhalde	Txiko	Aldude
Jose Mari Istillar	Lagun	Amaiur
Juan Jose Arrizabalaga	Azkar	Elgoibar
Juan Egurrola	Lur	Etxebarria
Jose Mari Jauregi	Leze	Ilarduia
Antonio Alustiza	Ttiki	Areso
Mitxelle Atxeritogarai	Alai	Ioldi
Jose Maria Pleguezuelos	Nuca	La Canonja
Florenci Serra	Perla	Oden
Juli Bayot	Espurna	Ares del Maestre
Pierre Pommies	Usso	Aramits
Pascal Cacheux	Scott	Larcan

txapelketako antolatzaile-etako bat.

Aurten, iazko proba berak izango dira: lehenengo proban, txakurrak artaldea bildu, hesi zabal batek pasarazi eta ondoren beste hesi batetik pasarazi beharko du; bigarrenen, txakurrak banderatxoen artetik pasatu, artaldea bildu eta eskortan sartu beharko du.

**51 URTEKO TXAPELKETA**

Artzain-txakurren lehen txapelketa 1955ean izan

zen, Oñatiko Gastiasoroko zelaian. Txapelketak *Primer Concurso Vasco-Navarro de perros de pastor* izena izan zuen eta Arrasateko Jose Iturbek jantzi zuen lehen txapela.

**HILAREN 26AN**

Beraz, domekan, irailak 26, artzainek eta txakurrek ardiak zuzentzeko duten abileziak gozatzeko aukera izango dugu Santa Lutzia zelaian; orain arte egindako lana agerian utziko dute artzainek eta txakurrek.



**egaralur**



Bidebarrieta 17 behea  
Tel.: 943 78 07 15 • Faxe 943 78 08 62  
20560 OÑATI  
www.egaralur.net

**Ondo pasau jaixak!**

- > Eraikuntza lanak
- > Industrinabeen eraikuntza
- > Obra Zibila - Urbanizazioak
- > Industrigune eta etxebizitzaren promozioa
- > Etxebizitzaren eraikuntza



itziar optika

Kale barria 32 • Tel./Faxe: 943 71 82 88 OÑATI • itziaroptika@wanadoo.es

## ARGAZKI ERAKUSKETA

# Argazkiz apainduko du plaza Ilunpetan elkarteak

Lau argazkilariren lanak egongo dira ikusgai irailaren 28tik urriaren 4ra

NAROA ODRIOZOLA

**Ilunpetan elkarteak Oñati begibistan argazki erakusketa antolatu du beste behin; taldeko lau kidek parte hartuko dute eta 12 lan egongo dira ikusgai.**

**A**urreko urteetan bezala, aurten ere argazki erakusketa antolatu du Ilunpetan argazki elkarteak. Izan ere, antolatu zen lehen urtetik, herritarren artean harrera ona izan du. Aurtengoa hirugarren edizioa izango da eta hilaren 28an hasi eta urriaren

4ra arte egongo da ikusgai plazako arkupeetan.

**LAU ARGAZKILARIREN LANA**  
Edizio honetan elkarteko lau argazkilariren lanak egongo dira ikusgai eta bakoitzak hiruna argazki aurkezteko asmoa dauka. Erakusketaren izenak esaten duen moduan, irudi guztiak Oñatiren gainekoak izango dira eta argazkilaria bakoitzak Oñati ikusteko duen modua islatuko du.

**ZOKKETA**  
Jaien amaieran, erakusketako argazkiak zokketatu egingo dituzte. Horretarako, erakusketak irauten duen egunetan kutxa bat



Argazki erakusketan ikusgai egongo den lanetako bat.

ILUNPETAN

egongo da plazan; interesa dutenek kutxan izenabizenak eta telefono zenbakia sartu behar dute. Jaien ostean zokketa egingo da eta saridunei jakina-

raziko zaie. Ilunpetan elkarteko kide Jokin Astigarragak azaldu digunez, ideia ona iruditu zitzaion Oñatiri buruzko argazkiak oñatiarren artean banatzea.

#### ERAKUSKETA PLAZAN

Bitxia da erakusketa kalean egitea, eta Astigarragak honela azaldu digu zergatia: "Plaza herriko gune garrantzitsuena da. Ez dut uste jaietan plazatik pasatzen ez den inor egongo denik".

**Lau argazkilariren lanak ikusgai; guztira, 12 lan egongo dira**

## Ageriko VIII. margo lehiaketa jokatu da domekan

09:00etatik 14:00ak arte Oñatiko txokoren bat margotu beharko dute ageriko VIII. margo lehiaketako parte-hartzaileek. Izenematea egunean bertan egin beharko da kultura etxean.

Lehiaketa bi taldetan banatua egongo da: 16 urtetik beherakoak, batetik, eta hortik gorakoak, bestetik. Parte-hartzaileek mihisea eraman beharko dute eta teknika librea izango da. 14:00etan entregatu beharko dituzte lanak eta sari banaketa 14:30ean izango da. Lehiaketako eta margo ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai izango dira kultura etxeko erakusketa gelan irailaren 27tik urriaren 12ra.

**Parranda egitera etorri geurrera!**



**Aker • Galicia • Harripe • Izarraitz  
Living Caffé Txurruka • Txopekua • Urtiagain • Zotz**

# Jaiegun hauetan PRIMERAN pasa El Boulevard-en



Markarik hoberenak moda, elektronika eta etxeko erosketetarako zerbitzu eta erraztasun guztiekin. Eta aisialdiko eta jatetxeetako eskaintza osatuena eta dibertigarriena zuretzat eta zure familiarentzat: laser abenturak, kartelerako azken estreinaldiak, bolon dibertsioa eta nazioarteko sukaldaritzako xarma osoa... zure zain daude El Boulevard-en bigarren solairuan.

**San Miguel zoriontsua opa dizuegu!**

Dibertsioz beteta, ZUTAZ beteta



www.el-boulevard.com  
Bezeroentzako arreta zerbitzua: 945 155 440



*ituziorako hamarika arrazoi*



ENPRESAGINTZA  
FAKULTATEA  
FACULTAD DE  
EMPRESARIALES



Oñati gestio  
heziketa

## ANTZERKIA



Besteak beste, antzezlanean parte hartuko dute Ixidro Palacinek, Irati Letek, Jabier Altubek, Karmen Biainek eta Julen Kortabarriak.

MIREIA BIKUÑA

# Makalenakoek bigarrenenez antzeztuko dute jaietan

Eguaztenean taularatuko dute 'Lizargarateko Txamoa' antzezlana Makalena elkarteko kideek

NAROA ODRIOZOLA

**Makalena elkarteak urte asko daramatza kultura ekintzak antolatzen. Oraingon, duela 30 urte inguru aurkeztutako antzezlana batekin datozkigu: *Lizargarateko Txamoa*.**

**H**ogeita hamar urte pasatu dira Makalenakoek *Unibertsitatea*. Oñati 1760 antzezlana aurkeztu zutenetik. Bada, Iñazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak lan hori moldatu dute eta *Lizargarateko Txamoa* da egin duten lanaren emaitza.

Antzezlana bi istorio ditu: batetik, bikote batek

ezkondu edo ez erabakitzeke duen auzia; eta bestetik, kanpoko ikasleen eta herriko gazteen arteko tirabirak.

Beraz, irailaren 29an, 18:00etan unibertsitate aurrealdean Makalenako en lana ikusteko aukera izango dugu.

**Irailaren 29an taularatuko dute Makalenakoek 'Lizargarateko Txamoa' antzezlana**

LIBURUAREN AURKEZPENA

Makalenakoen iazko *1542ko hitzarmena* eta aurtengo *Lizargarateko Txamoa* antzezlanean testuekin *Olaitturriren herri antzerkia* liburua idazten dihardute Iñazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak.

Liburua gaur aurkeztekoak ziren arren, oraindik osatzen dabilta eta aurkezpenera atzeratu egin da.

JERARDO ELORTZA /  
IDAZLEETAKO BAT

**"Orduko giroa ikusiko du ikusleak"**

N.O. &gt; OÑATI

Inazio Irizarrek eta Jerardo Elortzak idatzi eta moldatu dute *Lizargarateko Txamoa*. Elortzarekin izangara antzezlana hitz egiteko.

*Unibertsitatea*. Oñati 1760 eta *Lizargarateko Txamoa*: desberdintasunak?

Lehenengoa unibertsitateko giroan zentratzen da; bigarrenengoa, Txamoa da protagonista eta istorioaren zentroa. Hizkuntza aldetik ere desberdinak dira: bata gipuzkeraz idatzita dago eta bigarrena oñatiarrez.

Zer topatuko du ikusleak antzezlanean?

Garai hartako giroa ikusiko du ikusleak, kaletarren eta unibertsitateko ikasleen artean zeuden liskarrak.



MIREIA BIKUÑA

ARROPA,  
KASKOAK eta  
ZAPATILAK

Uda-garaiko  
hondarren  
LIKIDAZIOA

ARRASATE  
Foruen Enparantza • San Andres auzoa  
Tel.: 943 79 91 47

OÑATI  
Olakua 16  
Tel.: 943 78 29 86

Jai dotoreak izan!

# ileak

marikarmen ileapaindegia

san lorentzo 9 a - behea  
tel.: 943 71 60 46  
OÑATI

BERTSO SAIOA

# Punta-puntako bertsolariak etorriko dira Zubikoara

Besteak beste, Maialen Lujanbio txapelduna eta Amets Artzallus txapeldunordea arituko dira kantuan Zubikoa pilotalekuan

Zubikoa pilotalekua

**Urriak 1  
22:30ean**

Iturriaga, Lujanbio, Lizaso, Amuritza, Artzallus eta Maia bertsolariak

LANDER MUÑAGORRI

**Urtean bitan antolatzen dute bertso saioa Oñatiko Bertso Eskolak eta Udalak elkarlanean. Urriaren 1eko saioan, Lujanbio, Artzallus, Iturriaga, Maia, Lizaso eta Amuritza arituko dira.**

San Migel jaietako egitarauaren barruan ezinbesteko hitzordua izaten da bertso saioa. Bertso Eskolak eta Udalak elkarlanean antolatzen dituzte urteko bi bertso jaialdiak. Lehenbizikoa Errege bezperan izaten da, urtarrilaren 5ean, eta bigarrena herriko jaien barruan.

Bertso jaialdia urriaren lehen izango da Zubiko pilotalekuan. 600 pertsonarentzako lekua egongo da eta sarrera guztiak egunean bertan jarriko dira salgai. Eta prezioari dagokionez, gazteek 6 euro ordaindu beharko dituzte eta helduek, 8 euro.


Aurten luxuzko parte-hartzaileak izango dira Oñatin, azken bertsolari txapelketako finaleko lau parte hartzaile egongo dira-eta: Maialen Lujanbio txapelduna, Amets Artzallus txapeldunordea, Jon Maia eta Unai Iturriaga dira azken finalean parte hartu zutenak. Horiez gainera, Sebastian Lizaso eta Miren Amuritza ere izango dira. Gai-jartzaile lanetan, berriz, Oñatiko Bertso Eskolako kideren bat ibiliko da.

**ERREGETAKO ARRAKASTA**

Joan den urtarrilaren 5ean izan zen bertso jaialdiak sekulako arrakasta izan

zuen, Egoitz Aizpurua Oñatiko Bertso Eskolako partaide eta bertso saioko antolatzaileak adierazi digunez. "Orduko hartan bertso txapelketako boom-a gori-gorian zegoen, eta, horren eraginez frontoia lepo bete zen", zehaztu du. 700 pertsona inguru batu ziren bertso saioa ikustera.

Ordura arteko bertso jaialdietara 400 pertsona joan ohi zirela kontuan hartuz gero, sekulako aldea izan zen. Erregetako egun hura aparteko zerbait izan zen, eta Iñaki Olalde antolatzaileak ez du halakorik espero San Migel jaietako bertso saiorako. "Ez dut uste halako jendetzarik bil-



Amets Artzallus. GOIENKARIA



Jon Maia. GOIENKARIA



Maialen Lujanbio. GOIENKARIA



Unai Iturriaga. GOIENKARIA



Sebastian Lizaso. GOIENKARIA



Miren Amuritza. GOIENKARIA

**Bertso saiorako sarrerak egunean bertan lortu ahal izango dira frontoian**

**Erregetako saioaren arrakastaren ondoren, urteroko ikusle kopurua espero dute**

duko denik, agian tarteko zerbait izan daiteke, baina normalena ohiko zenbakietara itzultzea da", azaldu du. "Egia da, edozelan

ere, bertsozaleen kopurua ugartzen doazela eta bertsolariak gailurrean dagoela oraindik", Olalderen hitzetan.

Bertso saioan beteko duten lana hau izango da: ofizioak, bakarkakoak eta puntu erantzunak. Joan eta gozatu!

**TXANTXIKU**  
ELEKTRIZITATEA

Julian Uribeetxeberria Olalde  
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

**Ondo pasau jaixetan!**



Kale barria 20 • Errekalde 8  
Tel.: 943 78 01 54

**urrats**  
Podologia Zentroa

Ondo pasau San Migelak!



- Kiropodiak
- Azazkal inkarnatuak
- Oin diabetikoen ultzerak
- Garatxoak
- Miaketa biomekanikoak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako onddoen aurkako tratamenduak
- Silikonazko protesiak

Bidebarrieta 20 OÑATI Tel.: 943 53 36 37  
Ordutegia: 09:30etik 13:30era - 15:30etik 20:00etara

## HERRI EGUNA



Jendetza eta ganadua, biak batera.

GOIENKARIA



Zintzurra freskatzeko, primerako sagardoa.

GOIENKARIA



Herri bazkarian jende andana biltzen da.

GOIENKARIA

# Ekitaldiz beteta etorriko da beste behin ere Herri Eguna

Abeltzain eta nekazarien produktuak, artisauak, sagardoa, herri bazkaria eta herri kirolak izango dira protagonistak

LANDER MUÑAGORRI

**Jaietako egun handienetarikoa bat izaten da Herri Eguna, aurten urriaren 2an egokitu dena.**

**U**rtero legez, hainbat ekitaldi egongo dira, baita nekazaritza eta abeltzaintzarekin lotutako produktuak ikusteko aukera ere.

Herri mailako behi erakusketa eta ardi, ahari eta bildots lehiaketak egongo dira, batetik. Horretaz gain, asto, behor, zaldi, txerri, oilo eta pottoka erakusketak ere izango dira abeltzaintzari dagokionez.

Nekazariak ere euren fruitu eta barazkiak erakusteko eta lehiari jartzeko aukera izango dute. Artisauen lanak ere egongo dira, eta, nola ez, gazta lehiaketa. Goizeko azoka

horrez gain, baina, eguerdian sagardo dastaketaz gozatzeko aukera egongo da. 12:00etan Gipuzkoako hainbat herri eta sagardotegitako (25) sagardoa dastatzeko aukera egongo da.

Eguerdian, 13:15ean, goizean zehar egindako lehiaketen emaitzak eman go dira. 14:30ean, herri bazkaria egingo da Zubikoa kiroldegian. Txartelak dagoeneko salgai daude

Olakua, Izarraitz, Arrano, Guria, Antton eta Umerez tabernetan, 18 eurotan.

Arratsaldean, plazan herri kirolen txanda izango da: harri-jasotzaile eta aizkolariek erakustaldia egingo dute. Horretaz gain, Magunazelaia harri-jasotzaile gazteak errekor saiakera egingo du. Eguerdian txarra eginez gero, Zubikoa kiroldegian.

Kontzertu bi ere egongo dira: lehena parrokian

19:30ean, eta F. Esnalen *Sal-bea* eskainiko dute parrokiako koroak eta Oñatiko abesbatzak; eta 20:30ean eta 23:30ean plazan Trikitakek joko du.

Gau partean, 27. San Migel pilota txapelketako afizionatuen finalak jokatzeak ziren Zubikoa pilotalekuan. Baina Udalbide trofeoaren lehen edizioa ere egun horietan jokatzea da, eta pilotariak ezin izango dute etorri.

**Urdax Magunazelaia harri-jasotzaile gazteak errekor saiakera egingo du arratsaldean**

## UDAZKENEKO ESKAINTZAK

### Aurpegirako tratamenduak:

- Aurpegi garbiketak
- Begietako zimurren garbiketa
- Hidratazio sendaketak

### Gorputzeko tratamenduak:

- Peelingak
- Alga eta limoarekin egindako bildukinak
- Termasions: Zelulitisaren aurkako tratamendu berria

### Depilazioak:

- Beroa, epela, elektrikoa...

### - Laserra:

- Neodimio-Yag: azal beltzarana etaile sendoa dutenentzat.
- Argi pulsatua: ile sendoa zein fina dutenentzat.

### Kurtsoak

Nazioarteko Autoestimua Proiektua.  
ARIMAREN TAILERRA: Onarpena, Autoestimua...

### Eskaintza bereziak:

- Eskuaren irakurketa
- Harri bolkanikoekin egindako masajeak
- Bir-konexioa
- Mikropigmentazioak

**Laser bidezko depilazioa egingez gero, HOTELETAN GAUAK DOAN**

G  
e  
u  
z  
t  
e  
r

Kalebarria 29 behea  
Orbea Etxea, parke aldetik  
Tel.: 943 78 01 46  
[goiena.net/blogak/guztizeder](http://goiena.net/blogak/guztizeder)



**Ondo pasau jaixetan!**

**EZ AHAZTU** orain dela unerik egokiena LASER bidezko depilazioa egiteko, elektrikoa eta baita solariuma erabiltzeko ere.

**IRUROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

**Ondo pasau jaixetan!**

San Lorentzo auzoa 39 behea  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
OÑATI  
[irurok@irurok.com](mailto:irurok@irurok.com)

**ERROSAIXO BIXAMONA**

# Herriko kaleak kolorez jantziko dira

**Mozorrotzeko eguna izaten da Errosaixo bixamona Oñatin**

LANDER MUÑAGORRI

**Poni, zezentxo eta sokamuturrekin hasiko da eguna, baina berehala hartuko dituzte mozorroak herritarrek, horretarako egun aproposa baita.**

**E**rrosaixo bixamon eguna bereizgarria da herriko kaleek hartzen duten bizitasun eta koloreengatik. Egun honetako egitaraua goizean goizetik hasiko da. 09:30ean poni eta zezentxoak hasiko dira plazan, eta 10:00etan, bestetik, sokamuturra egingo da leku

berean. Zezenak Arno abeltzaintzak ekarriko ditu.

Musika Bandak kalejira eskainiko du eguerdiko 12:00etan. Eta apur bat beranduxeago, 12:30 eta 14:00ak artean, mozorro erakusketako sari banaketak egingo dira.

Lehiaketa bi maila ezberdinetan egingo da: 14 urtetik beherakoen, eta 14 urtetik gorakoen artean. Eta bertan parte hartu nahi duten taldeek gutxienez sei kidez osatuta egon beharko dute.

Mozorroak, beraz, eguerditik aurrera ikusi ahal izango dira herriko kaleetan zehar. Urtero legez, gainera, diru laguntzak banatuko ditu Uda-



Berriz ere, urteroko legez, kolorez jantziko dira Oñatiko kaleak.

GOIENKARIA

lak. Gaztetxoei 3 euro emango zaizkie, eta helduek, bestetik, 4 euro saketaratuko dituzte.

Goizean bezalaxe, arratsaldean ere sokamutur eta zezentxoaren aurrean korrika ibiltzeko aukera

ra izango dute haur eta gazteek. 16:30etik 17:00etara poni eta zezentxoaren txanda izango da, hau da, haurrena.

Eta hori amaitutakoa, berriz, 17:00etan, sokamuturren parada, gazteena, hain zuzen ere. Udalak jakitera eman duenez, 16 urtetik beherako guzientzat debekatuta egongo da sokamuturren parte hartzea. Inori ezer gertatuz gero, Udala ez da

euren erantzule egingo, eta hesietan jarritako bur-laderoak korrikalerientzako bakarrik izango direla gogorarazten du.

Arratsaldean, 18:30etik aurrera, Klowntukada batukada taldeak dantza eta perkusio kalejira eskainiko du kaleetan zehar.

Amaitzeko, 20:00etan eta 23:00etan, Egan taldearen erromeria eskainiko du Foruen plazan.

**Sokamuturren aurrean korrika aritzeko aukera edukiko dute gazteek**

**Udalak diru laguntzak emango ditu mozorrotzen direnentzako**

**Mendizabal**

**M<sup>a</sup> Angeles Mendizabal**  
Aho sendagilea

**Ondo pasau jaixak!**

- Inplantologia konbentzionala
- Gidatutako inplantologia (punturik gabe)
- Odontologia estetiko
- Periododontzia

Arantzazuko Ama 2C-behea  
20560 Oñati  
Tel.: 943 71 60 71  
[mendikorta@euskalnet.net](mailto:mendikorta@euskalnet.net)

**MAPFRE**

**ALTUBE ZERBITZUAK**

**Ondo pasau jaixak!**

Portu kalea 5 • 20560 Oñati  
Tel.: 943 78 12 65 • Faxe: 943 78 07 85



# 40

urte elkarrekin  
1970 - 2010

LORTU  
2010eko  
**EROSKETA  
DEBALDE\***



Sukalde eta bainuak

Santa Marina 3 • 943 71 62 81



Altzariak

Euskadi etorbidea 3 • 943 78 36 99



Atariak, leihoak eta zoruak

Patrua kalea • 943 78 04 04



etxetresnak

Patrua kalea • 943 78 04 04



Berezaio industrialdea • 943 78 20 08

## ERREFORMA INTEGRALAK

Gure enpresako langileek eginak, obrak ahalik eta azkarren bukatzeko.

[www.zelaiari.net](http://www.zelaiari.net)

\* 1.000 eurotik gorako erosketa bakoitzarekin hiru zenbakidun txartel bat eskuratuko duzu. Horetako baten azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa debalde lortuko duzu!